HERRIA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

N° 514 — BAYONNE : 8, rue Jacques-Laffitte — 25 libera (5 sos-berri) — 9 JUIN 1960 - EKAINAREN 9 - koa

Haurrak jostatzean du hobekienik salatzen bere egiazko jitea

Algeriatik Pariserat

GERLA HEDATZEN

Algeriako gerla urran zagola zitzaikun. Ikusoak ideiuzen au leize ntuto beherrou bat Frantziaren eta Algeriaren artean: ez « Océan » deitu leize ferdail ikaragarri batetarik, nahi dut; bainan asirtto nasaia, gauza zeruko harrak, sisti-saska, sar-jalgika jostatu urtzeko haren ur epheteat, eta gure arrangurak, harek gochatuak idurt, tokian diren ezinki, amets tzattek ilhuntzen ez gituztela.

Bainan huna nun gerlak jauzi egin daukun itsas-zilotik gaindi-gain, hurrutik bara.

Huna nun gerla heldu zaikun Pariserat.

Ez gerla gaua, gerlak bada zabaltasun, gerlak bere gorputz higuingarria haiterobila, patza-patza, mendi gainetarik erreka-zilaletaraino, herrestan.

Bainan gerla egiazkoa. Hiltzen duen gerla. Hisiuren lore gorria begietan deraman gerla.

Ez da egunik nun errehabez ukaiu: bat edo bertze ez baitire aditzen Pariseko karriketan, elu pilu-plau, gorputz gazte bat erortzen lurrerat.

Izanen dira emazte eta haurrak berriz ere nigarrez, bertzeak itriz ari direlarik, helichez bezti, bertzeak dau aelarik soineko aiosetan!

Algeriako gerla ari dela ezeztatzen? Ez luke iduri... Izaitekotz hedatzen. Achilda ditake behar bada, bainan denbora bereun sabaldu. Bitartekosmean galdua, irabazia du eremuan!

KECHUAREN HEZTEA

Ari gaiten dena kontseilu Algerintarreri, ez zutela gerla pindar kontseilu sartzerat utzi behar beren bihotzerat; ez zutela Arabe guzien aideriko mendekioa utzi behar irogatiera beren bihots-barneraino.

Milatan aituzen ginuen.

Arabe guziak ez dira hildatzaileen alde, ez aira hiltzez kobernuer. Ainitz eta ainitz bizi litezke Frantsesekin aduch, iur bertzek jostatzen dituztela, Jainkoak gazieri batzaek eta bertzek jostatzen dituztela, Jainkoak gazieri eman daukun bizi bakorrean.

Kostaltzea, aheretzea, itsura herie itsua sakotzen

Lire la suite en 2e page

NIGER, DAHOMEY, COTE D'IVOIRE eta VOLTA bere gain izanen

Ekainaren hiruq orhoitzekoa da Frantziarentzat.

Frantziaren inguran bilduak baitziren kolonia ahi andana bat, artikulu hunen titulak aipatzen dituen lauek jakinarazi dute De Gaulle jaun Presidentari, bere gain jarri nahi dutela.

Gabon herria da choil-choila Frantziaren meneko egoiten merrentoko.

Sare-mail bat haursiz geroz, sare guzia desegiterat doan bezala. Guinée herriak bere gain jartzea hautatuz geroz, «Communauté» gaichoa berreatzen ari izana da.

Mali eta Madagascar eskapatu zaizko lehenik Frantziari.

Gelditzen ziren erresumek uste zuten Frantziak hainitz estimatuko zuela heien atchikimendua, eta saristatuak izanen zirela. Houphouet - Boigny Frantsesen aspaldiko adichkide zintzoak berak De Gaulle jaunari erran dio, ortzirale aratsaldean, ez duela aski senditu Frantziaren bihotz one, are gutiago haren esku zabala.

Bi gizonen buruz-buruz hotcha eta laberra izan omen da; ez da harritzeko.

Mali eta Madagascar bi herriak, bere gain jartzean berean, juntatu ziren akordio batzuez Frantziarekin.

Oraikoan Niger, Dahomey, Côte d'Ivoire eta Volta berechtera doatzi lehenik. Gero chago ikusiko, nola antolatuko diren beren Nazio ohiarekin.

« Communauté » ohiaren zenatorrak bild: dira ortziralean bigarren aldikotz, hautsi dute « Constitution » eko zonbait artikulu: preseski nahi ukan dute onhartu, bere gain jarri erresumak ere barne atchik zitazkela.

Indochinari, Tunisiari, Marokari, Mali eta Madagascar: Niger, Dahomey, Côte d'Ivoire eta Volta-ri adio erran ondoan, Frantzia frango bulutzia dago, De Gaulle Presidentaren esperantzak gor behera!

Eta Algeriako jendea ere bere bairan dago pensatzen, hertzeri Frantziak eman libertatea, zertako ez dezakoen bertzek bezala ardiets.

Bi urte gabe De Gaullek utzi ditu Frantziaren menetik joaiterat 7 milian 689 mila eta zonbait ehun kilometra karrata ler, libertadea emanez 24 milian eta zonbait ehun mila jenderi. Bertze asko dauke, noiz izanen den heien aldi.

De Gaulle Afrikako erresumetako buruzagiekin mintzo: ahisatzen dute nahi dituzte beren gain.

Berri on bat

Laborarien pentsione errenta eta erretretak goititu

Hunen lehenengo Gobernuak erabaki bat jalgi du arras baliosa. « Sécurité Sociale » delakoak gauza gai i emaiten zioten laborarieri.

Parte heien fullu zen: hastean ez zuten sartu nahi izan bertzeen batasunean, eta gero oharta ziren hainitz galtzen zutela, berech izanez.

Orai gobernuak emendatu ditu laborarien abantailak ehunetarondako 21-ez. Giza hertan bertzeen hein berean kausitzen dira laborariak ere ponduan hortan.

« Ada mererkhuntu », Georges DANLOUP, 37 urte, militu batez salatzu dute. Emaztea hil baitzaio, horle haur tiipirekin gelditua, ofizio berri bat hartu du, haurren hora okupatzeko eta etcheuren ongi atchikitzeko.

Zahar eta gazteak...

Duela zonbait egun, « Le Monde » egunkari aipatuan, ideiak jaunitu batek aithortzen zien fermuki, izigarri arrado zela ikustea oraiko mendean etche batean bi familia bizi su ondo berian, hirian hek'akorik ez zela eta basherrian bakarrak zirela hola bizi; etche berean, salda berterik jan, mahain inguruan elgarrekin.

Izan ditake eskualde batzuetan ez dadien usu gertha bi senhar emazte andanak zahar eta gazteak etche berean, mahain berzen orzi eskual herriar eta bertze eskualde zonbaitetan bezala. Bizi mnnerak, laneko moldeak behar ba lagunrzen ditzale hola berechirik izaiten edo ere gazte hainitzek gogoan dute ez dezakeela zaharrek deus onik egin: ez lanari baruz ez eta ere familiako biziari saruz diotelarik « hobe dugu berechirik. Ez dina zaharren orangurak gureak eta ez ditzate gure gazten arrangurak konprenitzen » gazrek dute berechi nahi.

Nola behar litake ? Zahar eta gazteak batean elgarrekin? edo arras berechirik? edo berdin erdizka: laneko elgarrekin eta gero etchean berechirik!...

Balitz errapeda bat denen izar hereina! Kolore berekoa! athe guziek gako hora nulate bezala. Laster eman gintzake. Familia bakoitzak badu bere ilhordespen edo bere sogeretua. Ez da deneri errapeda bera emaiten ahal. Bainan ikusiz ikusiz adina eta kantuerak, bizitzeko lekua eta laneko saila, familiako baurride eta bertze etcheko gidak eta hargi hezatuk, ikusiz norek manatzen eta norek obeditu nahi duen. Ez da errana « Gaineko etchean » zahar eta gazteak

Segida laugarren plamaan

Zakurren asmua

Berriz ere lur ikarak sendiru dituzte joan den astean, hai Chilen hai Agadir-en.

Gauza bitchia, oren bat lurra ikarata aintzinetik zakurrak ari izan dira chuniaka daldara hasi artio.

Noiz merkatuko dute ezanza ?

« Club automobile » batasunak ez dira gordetzen heren kechuz.

Gobernua dela espantu ari da Frantziak orai, Sahara eta Lacq bezalako ezanza-ithurrieri esker, baduela ezanza zornahi.

Suez-eko ur-bidea zerratuz geroz, gobernuak ezanza nasaiki kariotu zuen, tatsa bat dela medio. Eta tatsa ez du kentzen, nahiz ezanza burrustan eation.

Frantziak du mundako ezanza karioena. Noiz deithoratuko da gobernua haren merkatzera?

Eskuara galduko dela, Eskualdunak osoki Erdaldunen peko egoiten badira

Eskualdun sortuaz ez dugu merezimendurik, ez ongeluz sartzerik... Bainan badira egiihideak hortarik... Sortzez ukan dohainak ez dituga behar ez lo, ez eta ere altzerat, bainan behar ditugu aliate eta emendaturik ondoeri pasatu.

Eskualdunek sortzez dugun ohain premiatsuena da gure eskuara. Eskuara galduz geroz, galdua da eskualdungoa. Eskuara baita, Eskualdunari, bertze jendetzeen artean, bere ek bizia edertzen du, bainan ainalea.

Eskuara gal othe ditake?...

Zerrako ez? Ela dior, segur galduko dela, Eskualdunak ez bagira Erdaldunen petik jalgiten, eta, hein batean bederen, ere hortaten jaun bikluka ten.

Eskuarak behar du izan ez bakarrik edergailu bainan baigailu

Maiz entzuten dena da: ertako buruna hautu eskuara ezin ikasiz?... Ez zait berdin hanirzik baitetuko: biziaren jalitzeko!

Hola mintzo direnak, egiaz mintzo dira... Oraiko moldetan, eskuara zuti baliutzen da egun guzitako ogiaren irabazteko... Oraiko moldetan, eskuara jakitea da, zirrika jotzen jakitea bezalatsu. Jakitate horrek bizia edertzen du, bainan ez hazten.

Bainan ethor bedi eguna, zointan, gobernuko ageri guziak lantegietako kondu eta plana guziak, radio eta telebichtak, izkirio eta eskolatzeak oro, eskuaraz eginak izanen baitira... Ethor bedi eguna, zointan lantegi batean sartzea ez baita errech izanen, eskuara ez dakienarentzat...

Eskuara bilhaka bedi, ez bakarrik biziaren edergailu, bainan hazgailu... Orduan ba, eskuara eta eskualdungoa salbu izanen dira.

Bainan, ez da haratik ez hunatik... Hein hortaratzekotz, Eskualdunek behar dute izan beren giderren jabe... Erdaldunen peko izanen direno, beren eskuara bazterrerat utzia izanen da: Erdaldunak nahiago baitu Eskualduna nekharazi erdara ikasten, bera, eskuara ikasten, nekhare baino.

● *Oraiko urhatsak ez dira debalde bainan bid'erdi*

Bazhidanik izan dira, gure artean, eskualzale suharrak, beren alud guziz ari izan direnak lanean, eskuararen alde.

Heieri esker, gure eskuara beiratua izan da eta ohore bada gobernuko eskola barnetaraino.

Bainan, halere eskuara ez da salbatua. Eskuara deruma kan karrosa, erdaldunen eskuetan deno, hare salba-tokitik bid'erditan izanen da.

Eskuararen salbatzea, eskualtzaleen bezenbat, politikazaleen lan da.

Jada askotan aiphatu dugu, hemen berean, nola, gure iduriko, Europa bat behar laitaken muntatu eta han Eskual-Herria ezarri, bere buruaren jabe, eskuz-esku bertze jendetzeekin.

Agian, eskualdun politikava leek eskual politika eginen dankute! Bertzenaz, ilun dira eskuara eta eskualdungoa!

KOSTATARRA

Zerga-biltzaleak kechu, ez dutela aski irabazten. Zerga pagatzaileak oraindik gehiago kechatzen dira.

LIBURU BERRI

LIBURU BERRI

" Leturiaren egunkari ezkutua "

Hauche da eskuarazko liburu baten titrea...

Liburu hau, Txillardegik egina eta duela hiru urthe alherata, uste gahetan bezala eskuratu dur Donostian, «Euson deithu liburu saltegian.

Hain du kausitu obra bereziu, azkarra, berezia, nun, buruen-buru irakurtu baitut hats berean.

ZERTAZ DEN

Liburu huntan, Txillardegik argitaratzen du hil den gizon baten kofesioa. Hilak bere kofesioa eskribuz utzi baitu.

Hil hori zer Eskualduna, eskola handikoa eta bethi irakur, bethi pentsakorra ari zena.

Zorionaren gakoa nahi zuen berorru... Zorionez asetzea uste zuen, kanpoko edergailuez bere gorphutz eta arimak haziz. Bainan, debaldetan...

Bere bihotzaren gosea laketzeko, ezkondu zen... Bainan ezkontzak ere ez zion zorion osorik eman....

Entseiatu zen behin ederian, ondorik pisatuz, bere penez ahantzteral, bainan penak orthi hor baitzituen ahatik.

Noizbait hada ikusten du Jainkoak duela bakarrik asetzea gizonaren barneko kezka eta orduan... hila kausitzen dute.

LIBURU HORREN MAMIA

Hilak bere kofesioa ez dio Jainkoari egiten, bainan bere buruari...

Bere barneko berri emaiten dauka, bere athormen, icaripen, griña, plazer eta gora-behera guziekin.

Bethi mamirat doha haren gogoa eta barzuetan hain bertia, nun, irakurleak behar baitu aphur bat irakurtzetik gelditu, pokadoa aberatsegi delakotz laster direitzeko.

Gertakariak ez dira bazterretik ikusiz kondatuak, bainan, kondalariak erakusten ditu bazterrean bezala, bere barneko berriak agertuz.

Kondalaria da bihotzaren etsai adimendu hotsaren alde, eta, horren gatik, dabilzkan gogo-borroketan, ba bera eta ba irakurlea uzten ditu, asko aldiz — zaintatuak, finak titan, mordoak.

ACHALA

Liburu hori gozatzekotz, irakurleak behar du adin pichka bat eta ere, hein batean, asko jakitatez argitua.

Eskuara ginezkoartez da, hizkaitar hirbira barekin... Horren ongi konprenitzeko, mugaz bertzaldeko hitz usaiazkoen batzu bederen behar liezke jakin.

Txillardegik berdin baliatzen ditu eskuara garbizko hitzak eta berdin erderatik eskuaratuak.

Batzuek baitiote eskuarazko hitzak direla sobera moritz eta motz, asko sentimendu lohun, chichtapur edo iragankorren azaltzeko — liburu hunek frogatzen du eskuaraz foil ditazkela, erdaraz bezen antsa, gogo eta bihotzare harat-hunat guziak.

Gainerat, Txillardegik, bere pikoak dabiltza oraiko jakintza berrienetan gaindi, den gutieneko lotsarik gabe.

Hots, liburu eder bat irakurri dut, eta, eskualtzaleeri hortaz izan dudan plazerra dioter salatzen!

HAUR ERITASUN MICHTERIOZKOA

Alemanian medikuak grifiatuak dira. Hesse eskualdeko eriregi eta kliniketan, hautematu dute haur sortu berri andana bat josk direla michteriozko eritasun batez.

Halako malerudi - malrantz batek hartzen ditu, eta odolak inizen diote biriterrat.

Hanau-ko klinikan zortzi haur tipi hil dira hortarik hamabortz egunik barne.

Francfurt-en 55 haur sortuberri baziren hunkituak joan den ortzegun atsalsean, eta haietarik zonbait gal-orduan.

GURE SOLDADOAK

Huna gu hemen, esker, Haisouet Pierre Urruharie eta eskuin Aguerre Rock Lohitzundarra, berantetsiak noiz ikusiko dugun Eskua-herri maitea. Biba kilia!

Tribune libre du Prisonnier

En marge des tours de Mourenx

UNE VILLE DECEVANTE

A travers les descriptions que j'en avais lu dans les journaux, les victoires mirobolantes aux mille photographies truquées, ce n'est pas du tout ainsi que je m'étais figuré la ville de Mourenx.

« Un morceau d'Amérique, incrusté dans un paysage béarnais », disait je ne sais quelle feuille, et le entoura gueur d'exaltez « les tours de ciment et de verre », que l'aisné jailir, parmi les fougères détruites, la bouche grouillante des bétonneuses.

Il n'y a pas de quoi entonner un chant de triomphe. Le miracle de Mourenx n'existe pas.

Mourenx est un campement d'habitations, attaché à l'immense usine qui est née sur le gisement du gaz de Lacq. Il a pour but de loger et de nourrir les ouvriers nécessaires à son fonctionnement.

Son caractère strictement, j'allais dire impitoyablement militaire, saute aux yeux. La « fonctionnalité » y est reine. Aussi se voit-il renié par l'architecte qui le rejette sur le dos de ce confrère plus soucieux de rentabilité que d'art, qui s'appelle l'ingénieur.

Pour moi, les longues casernes d'habitations, toutes semblables les unes aux autres, évoquaient les baraques d'un Stalag de luxe, qu'on aurait saisies par les deux bouts et empilées les unes sur les autres : cette position des bâtiments, les uns sur les autres, au lieu des uns à côté des autres, permet, paraît-il, de faire tomber les prix de revient.

Un escalier dont la rampe est fermée jusqu'aux marches par un grillage de fer pour prévenir tout accident périlleux, fait passer à travers les étages des familles dont les rumeurs peuvent être captées sans avoir les oreilles de Midas, le dernier satellite américain.

Sur un morceau d'immeuble un écriteau informe : « Mairie ». On aurait attendu aussi bien, « logements à bon marché », ou « bureaux de la Sécurité sociale ».

Parmi les techniciens de Mourenx, il y a cependant des paysagistes de grande classe. Le site est admirable. La nature a épuisé les crayons bleus et roses de son étui à pastel, pour colorer l'horizon, au-delà du Gave. La ville s'ouvre sur une forêt demeurée intacte. Et sur la place s'amusent, ceux qui tachèrent tout, de beaux enfants, seins et rieurs.

Lire la suite en 4e page